



# Inoiz baino partaide gehiago gaur XIV Orduko Ibilaldian

**KOPURUA** ▶ 3.300 mendizale inguru izango dira Aralarko Adiskideek antolatutako festan

**ESKAERA** ▶ Mendira «ohi bezala joatea» eskatzen diete antolatzaileek mendizaleei ▶ 119

**VILLABONA** ▶

**Festa giroan pasatu zuten eguna gazteek**

Mendi irteera, afaria eta kontzertuak izan zituzten ▶ 7

**TOLOSA** ▶

**Futbol taldeak etxean 1-2 galdu du** ▶ 6



## Baserritarrek San Isidro eguna ederki ospatu zuten

**TOLOSALDEA** ▶ Abaltzisketan, Asteasun, Baliarrainen, Larraulen, Orendainen, Tolosan, Zizurkilen... ospakizunez bete zuten San Isidro eguna eskualdeko baserritarrek. Mezak eta bazkariak izan ziren ekitaldi nagusienak eta errepikatuenak herri gehienetan, baina herri kirolak ere ez ziren faltatu izan atzoko egun berezian. Asteasun idi proba eta ahari jokoak izan ziren. Zizurkilen berriz, idi proba eta aizkolarien saioa izan zen goizean eta bertsolari eta dantzariena arratsaldean. Gaur, Elduainen ospatuko dute eguna. Argazkian, Tolosako prozesioa Santa Maria elizara iristen txistulariekin batera. OLAIJA ESKITXABEL ▶ 5



**TOLOSALDEA** GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



**'ATE IREKIEN EGUNA'**

Maiatzak 20. Orduetgia: 18:00etatik 21:00etara

Instalazioak. Eskaintza akademikoa. Ikastaroak. Ikusteko eta ezagutzeko aukera

**Zure etorkizuna ziurtatzen!!!**

Santa Luzia, 17 • Tel.: 943 65 11 47/943 65 06 64 - Faxe: 943 65 18 56 • 20400 TOLOSA  
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web orria: www.tolosaldea.com

### BIHAR HITZA IZANGO DA KALEAN

XIV Orduko Ibilaldia dela eta, eta astelehena izan arren, bihar TOLOSALDEKO HITZA kalean izango da. Kazetari taldea gaur ibilaldian zehar izango da lanean, martxaren informazio zabala eman ahal izateko. Asteazkenean, aldiz, ez da Hitzarik izango.

www.eurolan4x4.com

**LAND-ROVER**

**EUROLAN**  
4x4

**LAND ROVER KONTZESIONARIO BAKAR ETA ESCLUSIBOA GIPUZKOARAKO**

Donostia-Hernani errepidea (Galarretaren ondoan) • Tel: 943 33 10 06



UZTURRETIK ▶  
JOXAN ORMAZABAL

## Baserritarra beti lanean

**A**tzo, maiatzak 15, baserritarren eguna: San Ixidro. Hori dela eta, Goierriin jasotako bi ipuin labur etorri zaizkit burura.

1. Baserritar bat aitzurrean, zebilen soroan, izerditan. Ogi koskor bati hozka egiten zion eta gero ogi koskor hori sailean aurrerago bota. Ogia zegoen lekura heltzen zenean, beste hozkada bat egin eta aurrerago botatzen zuen.

Handik hurbil, pixka bat goraxeago, amona bat zebilen zuhaitz baten azpian zibuan. Jainkoa zerutik begira zegoen, eta esan zion San Pedrori:

—Zoaz soroan aitzurrean ari den gizon harengana eta kenduozu ogi koskor hura, eta emaiozu han goraxeago zibuan dabilen amona hari.

Eta San Pedrok, harriturik, esan zion Jaungoikoari:

—Baina... lanean ari denak ogia jateko premia handiagoa izango du, ezta?

Eta Jaungoikoak erantzun:

—Ez, lanean dabilenak, lanean dabilen bitartean, ez dauka jateko astirik, eta zibuan dabilenak bai.

Horrelaxe sortutakoa omen da hain lege ezaguna: «Baserritarrarentzat lana, alferrarentzat jana».

2. Jainkoak mundua egin zuenean, abadea, prailea eta baserritarra egin zituen.

Abadea joan zitzaion lehen-bizi eskabidearekin:

—Zer nahi duk? —galdetu zion Jaungoikoak.

—Bizimodu ona.

—Har ezak, inork oraindik ez zidak eskatu eta.

Laster prailea ere han joan zitzaion Jaungoikoari bizimodu ona eskatuz.

—Bizimodu ona abadeak eraman dik —esan zion Jaungoikoak—. Hik pazientziarekin konformatu beharko duk.

Pazientziarekin nahiko triste erretiratu zen praile gizajoa komentura.

Azkenean, baserritarra etorri zitzaion Jaungoikoari bizimodu onaren bila.

Jaungoikoak esan zion:

—Abadeak eraman dik.

Baserritarrak orduan pazientzia eskatu zion.

—Pazientzia —esan zion Jaungoikoak— praileak eraman dik. Hiri lana emango diat bi alper horiek mantentzeko.

Horregatik egin behar izaten omen dute.



## Juan Mari Arzak urteko lehen babarruna ereiten

**ASTEKO IRUDIA** ▶ Ostiralean egin zuten Tolosako babarrunaren lehen landaketa Babarrunaren Elkarteak eta agintariek, Juan Mari Arzak sukaldari ospetsua gonbidatu berezi

zela. Samaniego ikastetxeko ikasleek ere parte hartu zuten ekitaldian. Argazkian, Arzak aitzurrearekin lanean, babarruna ereiteko. IRATXE ETXEBESTE

**LUIS MARI GALARTZA** ▶ USABAL SAGARDOTEGIKO NAGUSIA ETA AKTOREA

# «Pobrea izan arren, aberatsak bezala bizitzea gustatzen zait»

Usabalgo sagardotegiko nagusia eta *Goenkalen* aktore lanetan ibilitakoa da Luis Mari Galartza amezketarra; orain, Kaiku esnekien iragarle gisa ezagutzen du jendeak

**OLAI A ESKITXABEL**

Behin ikusiz gero, ahaztezina den horietako aurpegia du Luis Mari Galartzak; txikia eta bizia. Bibote luze zuriak, elegantzi puntua ematen dio Usabal sagardotegiko nagusiari. *Goenkalen*, diru pixka bat egin eta etxera bueltatu zen artzainaren papera egin zuen. Kaikuko iragarkian ere patrika hutsik, baina uste handiko pertsonaiaren papera egin du. Eguneroko bizitzan ere antzekoa papera betetzen omen du.

**Telebista mundurako saltua nola izan zen?**

ETB-n ematen zuten *Zoombados* programan broma egin zidan semeak; han ikusita, *Goenkaleko* produktiotik deitu zi-

daten proba bat egitera joateko. Deia hori beste broma bat izango zela pentsatuta prestatuta joan nintzen; baina, han nire moduko jende mordoxka zegoela ikusita, *casting* bat zela ikusi nuen. Hasteko nire burua aurkezteko esan zidaten eta hori nola hala egin eta gero, kamarak, argiak... jarri zituzten eta neska bati deklaratzeko eskatu zidaten. Neska eskutik heldu makurtu eta hantxe hitz goxoak erabiliz egin nion maitasun aitortzea. Hori ezin hobeko egin nuen ligatze lanetan iaioa bainaz. Froga hori gaindituta, *Goenkalerako* aukeratu ninduten eta Maria Luisa maitemindu nahian aritu nintzen. **Eta orain Kaiku esnekien iragarkian. Nolatan?**

Sagardotegian lanean nengoe-la proposatu zidaten. Iragarkia egiteaz arduratzen zirenak sagardotegian afaltzen egon ziren batean ni ikusi eta *casting* era aurkezteko proposatu zidaten. Iragarkia prestatuta zeukaten eta bertan pertsonaia bat zuten marraztuta: gizon burusoila, txikia, tripa pixka batekin eta bibotearekin. Ni ikustean, beren artean, bilatzen ari ziren pertsonaia ni nintzena etorri omen zitzaion burura. Sagardotegiko zerbitzariek esaten didaten bezala, batzuk bila ibili eta lana aurkitu ezinean ibiltzen dira eta nik, berriz, bila aritu gabe, bi eskaintza izan ditut.

**Eta bietan aberats papera egitea tokatu zaizu. Zergatik?**

Paper guztiak naizen bezala ateratzen zaizkit. *Goenkalen* Ameriketara artzai joan eta diru pixka batekin bueltatutako gizona antzeztea tokatu zitzaidan. Orain ere, Kaikuko pertsonaiak aberatsaren papera egin du, baina pobrea da. Ez zaio ezer tokatzen. Niri ere, pobrea izan arren, aberatsa bezala bizitzea gustatzen zait. Hori dela eta egin ditudan pertsonaiak berru barrutik ateratzen zaizkidala esaten dut.

**Zer moduz joan zen iragarkia-  
ren grabazioa?**

Grabatu genuenean, jogurt pila bat jan nuen. Eszena bakoitza grabatzeko hamabi aldiz errepikatzen genuen. Ni esne edale txarra naiz eta zailena, soja esne trago bat egin eta gero oso ona zegoenaren keinuea egitea izan zen.

**Iragarkia grabatu duzunetik esaten al dizute zerbait kalean?**

Hara hemen da Kaikuko gizona!, esaten didate askok kalean. Bilbotar harropuzaren papera eginen dudala esaten didate, eta nik neroni horrelakoa naizela erantzuten diet.

**Ofizio asko pasatakoa zara; zein duzu gustokoena?**

FPko mekanika ikasketak egin nituen Tolosan; gero Amezetakuko papeleran hamar urte egin nituen mantenuan. Trailer

IRITZIA ▶ ANDU MARTINEZ DE RITUERTO (EUSKAL MENDI FEDERAZIOKO ZUZENDARITZAKO KIDEA)

## XIV Orduko Ibilaldiaren aurrean

**E**uskal Herrian eta zeresanik ez Tolosaldean, mendizaletasuna erabat errotua dago, eta ez bakarrik aisialdirako aukera bezala, gutako askoren bizitzaren ezinbesteko osagarri bezala baizik.

Mendiak gozamenerako eskaintzen dizkigun aukeren artean seguruenik aintzinasan handiena ibilaldiak izango dute. Hasiera batean eta urte askotan helburu praktikoa izango zuten: inguruko herri eta inguruetara gerturatzeko bide bezala, animalientzako giro goxoago eta jateko xamurragoaren bila... Egun berriz, mendian oinez gabiltzan gehienok ekin-tzak berak eskaintzen dizkigun onura fisiko zein psikikoengatik egiten dugu, eta garai batean gure aurrekoek horren maiz erabiltzen zituzten bideak galduak edo galbidean egonik ere, jende dezente dabil altxor horietako asko berreskuratzeko ahalegine-tan. Gertuko bi adibide eder ditugu, Erniopeko herriaren arteko bideak eta Noaindik Azpeitiaraino doan Probin-tzetako Erret ardibidea.

XIV Orduko Ibilaldiak aipatutako bideekin zerikusi handirik ez izan arren

(1925ean lagun talde batek bere buruari jarritako erronkan baitu bere sorrera) klasiko bat bihurtu da Euskal Herriko ibilaldi luzeen artean. Hau dela eta hausnarketarako zenbait gai aipatuko ditut.

Tolosaldeko mendietatik jendea ikustea ohikoa bada, ibilaldiaren aitzakian mendizaleen ugaritzea nabarmena da: gizon, emakume, gazte eta adineko, taldean edo bakarrik, baina hori bai gehienak jantzi eta bota egokiekin, pauso txukunean eta itxura ezin hobeaekin eta azken aldian asko bastoiekin. Honek mendizaletasun eta ariketa fisikoaren kultur maila altua adierazten du eta Aralar-ko Adiskideak mendi taldekoek ahalegin nabaria egin dute hau honela izan dadin, hor dago orain dela 8 urteko *Ibiltari* liburu ederra eta aurtengo edizioiko oparia eta aurkezpen liburuskari azaltzen den artikulu interesgarria. Aipatzen dudana egoera honen frogarria argigarria honako hau litzateke, orain dela 4 urteko edizioko parte-hartzaileen (3.062 lagun) %92,2k (2.822 lagun) bukatu zituztena, eta horren ibilbide luzea bukatzeko ezin-

bestekoa da gutxieneko prestaketa egitea. Hala ere prestaketa eskaxarekin irretzen diren gutxi horiek bere gorputzari jipoi ikaragarria ematen diotela eta arrisku handi xamarrek hartzen dituztela jakin beharko luke-te.

Orain dela lau urte ingurumen azterketa egin zuen Alberto Luengo biologoak eta ibilaldiak ingurumenari egiten dion kaltea oso ahula dela ondorioztatu bazuen ere badira ibilbidearen bi inguru: Iribasetik San Miguelera eta Igaratzatik Amezketaraino nire ustez dezente sufrituko dutenak 3.000 lagun pasatxo bertatik igarotzean. Bestaldetik, Luengok aipatzen du gutxiengo batek (%2-3) zaborrak ez dituela ondo botatzen edo gordetzen; honek esan nahi du 80 la-

gunek dutela jokabide oker hori, eta ez da batere kooperu makala. Parte-hartzaile guztiak arduratu beharko lirateke hori gerta ez dadin.

Ibilbideak duen xarma zalantzan jarri gabe nik neure buruari egiten dizkiogan galdera pare bat botako dizkizuet: zergatik ez egin ibilbide bera urteko beste edozein egunetan nik nahi dudana lagunekin beste 3.000 pertsonekin batera ibiltzeko beharrik izan gabe? Ibilbidearen zati handi bat asfalto edo hormigoia dela kontuan izanik zergatik ez...?

Nire arazoak alde batera utzita, gomendio batzuk egingo dizkizuet: gaur arratsaldean Berazubín eta nahiz eta pott eginda egon gogoratu oso ondo etorriko zaizuela luzamendu lasaigarririk batzuk egitea. Masaje arin bat hartzeko aukera ere etzazue galdu eta dutxako txorrota bizkarraren behekaldean minutu batzuk eduki ezazue. Astelehenean eta nekatuak egonda ere ariketa lasaia eta luzamenduak egiten saia zaitetzte, on egingo dizue eta.

Bukatzeko antolatzaileen lana azpimarratu eta txalotu nahi nuke, ez da batere erraza tamaina honetako ekin-tza aurrera eramatea eta ezin hobeto egiten duzue.

## GALDERA

Zergatik ez egin ibilbide bera urteko beste edozein egunetan nik nahi dudana lagunekin?

## PERTSONALKI ▶

▶ 1924ean jaioa ▶ Amezketarra, baina ezkondu gero Tolosan bizi da ▶ Emaztea irurarra eta bi seme: Iker (*Goenkaleko* Tomas) eta Amaia ▶ Egun, Usabal sagardotegiko nagusia

**Zaletasunak?** Mendian perretxiko bila ibiltzea, ehizatzea eta beste sagardotegietara joatea. **Ehizatze leku bat:** Burgosen daukagun kotoa. **Eta perretxikoak biltzeko?** Amezketarra naizenez inguruan ibiltzea asko gustatzen zait.

## BILBOTAR PAPEREAN

«Bilbotar harropuzaren papera egiten dudala esaten didate, eta nik neroni horrelakoa naizela erantzuten diet»



txiki batean aritu nintzen ondoren. Jarraian, kamioizale sartu nintzen. Kamioia beti izan dut gustuko; errepedean ibiltzea asko gustatzen zait. Hala ere, etxe inguruan zerbait bilatu nahian sagardotegia ireki genuen; arriskurik ez duen lanbidea da, baina pazientzia handia izan behar da. Aktore gisa hainbat lan ere egin dut. Aktore izatek bizitzeko aukerarik izango banu, dena utzi eta berehala sinatuko nuke hori gus-tura.

**Aktore lanak adina gustatzen zaizu ehizatzea. Lagunekin joaten zara, ezta?**

Burgosen joaten gara ehizatze-

ra, koadrilan. Ezer ehizatzen ez badugu ere ondo pasatzen dugu, ez zaigu jatekorik ez edatekorik faltatzen eta.

**Sagardoaren mundua ere gertutik ezagutzen duzun horietakoa izanda, nola definituko zenuke aurtengoa?**

Aurtengo sagardoa iazkoa baino askoz hobea da, gozoagoa da. Gizonezko askok emakume sagardoa dela esaten dute, gizonezkoek fuertagoa gustatzen zaiela esaten baitute, indartsuarenak egiteko. Aurtengo sagardoa pixka bat gozoa badago, baina gizonezkoek ere horrelako sagardoa gustatzen zaigu.



O. ESKITXABEL

HEZKUNTZA ▶

# Natur ingurunekeo gidaritza teknikaria izateko aukera Tolosako Orixe Institutuan

Mendia, bizikleta eta zaldiaren inguruko jardueretan gidaria izateko ezagupen teoriko eta praktikoa enpresaren munduarekin konbinatzen ditu ziklo honek



Irteera ugari egiten dituzte ikasleek ikastetxetik kanpora, mendira, bizikletaz eta zaldiz. HITZA

## OLATZ HERNANDEZ

Natur Ingurunekeo Gorputz e ta Kirol Jardueren Gidaritzako Teknikaria bilakatzeko aukera eskaintzen du Tolosako Orixe Institutuak.

Gaur egun, titulazio ofiziala duen ideia hau, duela bost urte jaio zen eta bertako irakaslea den Justo Lillok adierazi zue-nez «kasualitatez sortu zen, Ramon Elkoro lankideak ea natur jardueren ikastaro bat

ematera animatzen nintzen, galdetu zidanean». Izen luzea eta korapilotsua izan arren, bere esanahia zehatza da: naturaren inguruan jarduerak egin ahal izateko gidari batek behar duen prestakuntza eskaintzen duen formazio zikloa.

Natura ingurunekeo jarduera bezala, mendia, bizikleta eta zaldia aztertu eta lantzen dira kursoan zehar. Ezagupen teorikoak praktikarekin konbinatzen dituen ikas zikloa da, ikas-

leak mila ordu beteko baititu ikastetxean eta lauhun enpresetan lan praktiketan.

## Teoria eta praktika

Ikasleen ordutegia, beste zikloetako ikasleek daramatena bezalakoa da, goizeko zortzietatik arratsaldeko ordubiak eta laurdenak arte. Ezberdintasunik garrantzitsuenak, praktikan dago, hots, ekintza gehienak, ikas zentrotik kanpo burutzen

direla. Egun batzuk institutuan eta besteak, mendian, bizikletan edota zalditegian ematen dituzte, ziklo honetan teoria eta praktika lantzea ezinbestekoa baita.

Ikastaro honen azken helburua, ikasleak gidari batek behar dituen ezagupenak lortzeaz gain, lan mundura begira ere, bere enpresa sortzeko behar dituen baliabideak ezagutaraztea da. Beraz, ikastaroan zehar landuko dituen gaiak, ez dira natura eta kirol ekintzetera mugatzen, psikologia, talde dinamika, elikadura eta abar lutzerekin batera, enpresaren mundua ezagutzeko aukera eskaintzen du.

## Formazio Moduluak

Ikasleak bete beharko dituen ordu lektiboak, bederatzi sailla edo modulutan antolatuta daude: mendi, bizikleta edota zaldi irteerak aztertzen dituzten hiru modulu; biologiaren hastapena, osasuna eta larrialdietako laguntza moduluak; talde dinamika moduluak; ezintasunak dituzten pertsonentzako jarduerak fisikoek moldaketa lantzen duen moduluak eta administrazioa, enpresa eta kalitatea aztertzen duten hiru modulu. Ikasleak modulu guztiak gainditu beharko ditu, azterketa praktikoa, nahiz teorikoa.

Ikastaroa ez da azterketekin amaitzen. Natur Ingurunekeo Gorputz eta Kirol Jardueren Gidaritzako Teknikari titulua lor-

tu ahal izateko, ikasleak lauhun ordu bete beharko ditu enpresetan praktikak egiten. Orixe Institutuak enpresekin harremanak mantentzen ditu, ikasleak esperientzia hartzeko aukera izan dezan.

## Baldintza eta irteerak

Erdi mailako formazio kurtsu honetan matrikulatzeko gutxieneko adina hamasei urtekoa da eta gutxiarik, Graduatu Eskolarra eduki beharko du ikasleak. Ez dago onarpen frogarik, salbuespena, hogeita bost ikasleren kopurua gaindituko balitz bakarrik gertatuko litzateke eta gaurdaino behintzat ez da horrelakorik pasa.

Ikastaro honetan, hogeita bi ikasle hasi baziren ere, hamazepik bakarrik jarraitzen dute. Justo Lillo, Ramon Elkoro eta Patxi Alberdi irakasleak bat datoz ikastaroarekin ez jarraitzeko arrazoia aipatzerakoan: «Despistatu asko matrikulatzen da, ziklo dibertigarria eta erraza delakoan, baina lan gorrak eskatzen du».

Orixe Institutuak eskaintzen duen ziklo hau Bartzelonan, Asturias eta beste tokitan ere badago. Tolosan kokatua egoitea kasualitatez gertatu bazen ere. «Tolosan mendi eta bizikleta zaletasun handia dago eta fisikoki ere oso aproposa izateak asko laguntzen du», adierazi zuen Lillok. Hala ere, Tolosa eta inguruko ikasle gutxiak parte hartzen du, Donostia, Bizkaia eta aurten Ourensetik etorri den ikasle bat bada.

Aurten berrikuntza modura eta ikastaroa eskuragarriagoa gerta dadin, ikasle libreentzako adaptazioa ezarriko da. Arratsalde eta agian, asteburuetan ere ordutegi moldatua eskainiko du ziklo honek. Ikasleak moduluak betetzeko ordutegi eta baldintza bereziak izango ditu, baina ikasle guztiek zikloa bere osotasunean bete beharko dute. Berrikuntza honen xehetasunak zehaztear daude oraindik.

## Aisia, lanbidearekin lotzen duen formazio zikloa

Ikas ziklo honen egitarauak jabetxe aparta bateko menuaren antza du natur ingurua eta berari lotutako jarduerak atsegin dituenarentzat. Horregatik ikasle asko ikastaroaren seriosotasun eta lan interesgarri baina gogorrarekin topo egitekoan, harritu egiten direla dio te arduradunek.

Natura eta ingurumena gustatzeaz gain, ikasleak bere aldetik dedikazio handiz jokatu beharko du, ikastetxetik kanpo ere. Irakasleek kontzeptuak,

praktikak eta aholkuak eman ditzaketek, baina prestakuntza fisikoa norberaren ardura da, ikasle bakoitzak jakin behar du bere burua eta osasuna zaintzen.

Justo Lillo, Ramon Elkoro eta Patxi Alberdi irakasleek duten arerierik handiena, ikasleen heldutasun eza da: «Erdi mailako zikloa da, baina goi mailakoa izan beharko luke; hamasei urteko gazte bat ez dago talde baten ardura hartzeko prest, heldutasuna falta zaio».



Justo Lillo eta Ramon Elkoro dira zikloko bi irakasle. OLATZ HERNANDEZ

Natur ingurunekeo gidaritza teknikari ikastaroari mesede handia egingo liokeen beste aldaketa bat, iraupenarena da. «Edukia handia da eta orduak berriz, ez dira nahiko», adierazi zion HITZARI Patxi Alberdi irakasleak.

Eskaintza oparoa da aipatzen dena eta baliatu nahi duenak, aukera ezin hobea izango du. Mendian, bizikletan nahiz zaldian, kartografia nahiz elikadura eta enpresa munduarekin harremanetan jartzeko aukera badago Tolosaldean, afizioa ofizio bilakatzeara, hain zuzen ere.





## KLASIKOAREN ORDUA

Gaur goizeko bostetan abiatu dira mendizaleak XIV Orduko Ibilaldian; 68,5 kilometro egin beharko dituzte, eta inoiz baino partaidetza handiagoa dago aurten

# ERRONKA HANDIA

Prestakizun ona eskatzen duen ibilbidea da; 68 kilometro ditu denera



**XIV Ordukin**  
bat eginez,  
tolosar denekin  
bat eginez

**CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA**

**DATUAK ▶**  
Antolaketa: 250 lagun.  
Irteera: 05:00etan aurrenak; azkenak 06:00etan. Berazubirik (Tolosa).  
Amaiera: 18:30-21:00ak bitartean aurrena itendakoak. Berazubiri.  
Luzera: 68,5 kilometro.  
Parte-hartzaileak: 3.300 inguru.  
Edizioa: 13.a.

**PUNTU NAGUSIAK ▶ IRTEERATIK**  
1. Ub. 11,8 kilometroa. 2:20 ordua.  
2. Gorriri. 18,7 kilometroa. 3:40 ordua.  
3. Lekunberrri. 26,7 kilometroa. 5:15 ordua.  
4. San Migel. 38,4 kilometroa. 7:55 ordua.  
5. Igaratza. 47,3 kilometroa. 9:55 ordua.  
6. Amezketeta. 57 kilometroa. 12:25 ordua.  
7. Tolosa. 68,5 kilometroa. 14:30 ordua.




## XIV Orduko ibilaldietan parte-hartzaileak, historian zehar

	25/6/7	26/5/30	43/5/30	67/5/28	72/5/21	76/5/23	80/5/25	84/5/20	88/5/15	92/5/17	96/5/26	00/5/18
Ateratakoak	14	13	111	240	362	416	522	810	1.174	2.002	2.522	3.062
Erretiratutak (%)	7,1	38,5	5,4	2,5	21,8	22,8	17,8	15,2	9,2	16,8	11	7,8
Irteeratakoak	13	8	105	234	283	321	429	687	1.066	1.665	2.244	2.822

## PARTAIDETZA GORAKA

Ediziotik ediziora gero eta mendizale gehiagok bukatu izan du ibilaldia

Aspaldi hasi ziren mendizaleak XIV orduko ibilaldiarekin. Argazkietan, kontrol batean eta Berazubiri.



### DATUAK ▶ JAN-EDANA

Ura. 28.000 botila baki.  
Jogurt likidoa. 30.000 botila baki.  
Laranja. 1.500 kilo.  
Tomatea. 300 kilo.  
Ogja. 1.400 barra.  
Salda. 600 litro.  
Txokolatea. 1.300 tableta.

**TOLOSako UDALA**

## Tolosako Udala XIV Orduko Ibilaldiarekin, tolosarrekin

*Ikusi mendizaleak baso eta zelaiaik mendi tontor gainera igo behar dugu!*

AITOR ELDUAIEN ▶ ANTOLAKETAKO KOORDINATZAILEA

# «Mendira joan ohi bezala egin behar da ibilaldia»

Lau urtez behingo XIV Orduko Ibilaldiaren bezperetan, Aitor Elduaien koordinatzailearekin izan da HITZA, antolaketaaren gorabeherak ezagutzeko

Santa Klara komentura arrautz dozena ematetik datorrela hitz egin du HITZAREKIN Elduaienek. **Zergatik du hainbesteko arrakasta ibilaldi honek?** Lau urtez behin izateak gantxo berezia ematen dio, urtero izanda lortuko ez lukeena. Parte-hartzaile askok aukera aprobetxatu behar dela pentsatzen dute, hurrengoa agian ezingo dutela egin. Antolaketa hartu duen dinamika ere badu zerikusia du: irudia asko zaintzen da, ibiltaria mimatu egiten du (opari ona eman, kontroletan janaria eta edaria)... eta eroso sentitzen da. Euskal Herriko ibilaldi ezagunena eta handiena izatea lortu du.

**Batzuei ez zaie masifikazio hori gustatzen.**

Bai, bada sektore kritikoa. Parte hartuko duten hiru mila lagun horiek —batzuk iritzi kritikoa izanda ere— ibilaldia den bezala onartzen dutela suposatzen da. Izango dira beste batzuk parte hartuko ez dutenak arrazoi horrengatik: hori ez dela mendian ibiltzea, anoa gunek soberan daudela... Onartzen dugu. Parte hartzen duenak badaki zer dagoen. Mendia hor dago, urte osoan joan nahi duenarentzat.

**Ibilbidea ere batzuek ez dute gustuko; asfalto gehiegi dagoela diote.**

Horrelako iritzi batzuk entzun ditugu. Ibilaldi osoa mendira eramatea proposatzen dutenik bada. 1925ean lehen aldiz egin zuten haien ibilbidea errespetatzea erabaki da, tradizioagatik mantentzen da ibilbidea.

**Parte-hartzaileentzako aholku batzuk. Oinetakoei buruz, adibidez.**

Bota edo mendiko zapatilak erabiltzea gomendatuko nuke. Azken horiek gero eta gehiago erabiltzen direla ari gara ikusten. Normala da, asfalto dezentte dagoela eta bide gaiztorik ez dagoela kontuan izanda.

## ARRAKASTA

«Ibilaldia lau urtez behin izateak gantxo berezia ematen dio, urtero izanda lortuko ez lukeena»

## TRADIZIOA

«1925ean lehen aldiz egin zuten haien ibilbidea errespetatzea erabaki du elkarteak, tradizioagatik eustea»

## Janaria.

Nahiz eta antolaketa zerbait jarri, motxila txiki bat eraman behar da jateko zerbaitekin, aldatzeko arroparekin... Normalean mendira joan behar den bezala egin behar da ibilaldia. Naturan gaude eta kontuz ibili behar da badaezpada.

**Ibilaldiaren egunean sekulako zaparrada hasten bada...**

Antolaketa gutxi aldatuko litzateke. Irteera gunean aldatuta txikiren bat izango litzateke. Martxa bera gogortuko egingo luke: lokatz gune handiagoak, segurtasun arazo gehiago...

**Sekulako eguzkia eta edariak berehala bukatzen badira....**

Iturriak ere badira ibilbidean. Uraren kalkulua oso goitiki egiten dugu. Aurretik joaten direnei gehiegi ez hartzeko esango

diegu, atzetik datozenek behar handiagoa izango dutela eta. Mendiko filosofia hori ez dugu ahaztu behar, ez gaudela belodromo batean, naturan baizik.

**Minatako jaietsieran duela lau urte sekulako tapoia sortu zen.**

Ondarreko aukera ere seinalizatu dugu, zerbait luzeagoa da, baina hobeto egoten da normalean. Bestalde, kontroletan malguagoak izango gara aurretik doazenekin.

**Zer da Aralarko Adiskideak?**

Ehun lagunetik gorako elkarte bat. Meritu handia du horrelako antolaketa egiteko eta mantentzeko gaitasuna duelako. Kanpoko laguntzaile asko dituela esan behar da.

**Arazorik izan al duzue antolaketa?**

Nafarroako Gobernua-rekin batzuk. Elkarte erregistroan sartzea eta tasa bat ordaintzea eskatu ziguten. Ondoren ibilaldia pasatzen den udalen baita. Ibilaldia ezingo genuela egin esan ziguten. A z k e n e k o ordua arte ez dugu dena lotu.



## Aralarko Adiskideak, Igaratzari lotutako elkarte

Iturribeltz iturriaren ondoko zelaietan, Igaratzan edo Errenagan, aterpetxe bat eraikitzeko sortu zuten Aralarko Adiskideak ehun lagunek, orduko 100 pezetara jarri, Tolosako eta Donostiako lagun batzuk 1928an. Francisco Tudurik ekarri zuen

aterpetxea egitearen ideia Norvegiatik, Joaquin Labaien izan zen arkitektoa, Antonio Garmendia kontratista eta Pedro Etxeberriak jarri zuen lehen harria 1928ko maiatzan. Inaugurazioa urte bereko irailaren 9an egin zuten. Handik



Taldekieak, Igaratzan. HITZA

urte gutxira, ondoan dagoen aterpetxe irekia eraiki zuten elkarteak. 1946an, berriz, Igaratzako kapera eraiki zuten, gero zabaldu egin zuten eta gaur egun dagoen kapera 1947ko irailaren 15ean inauguratu zuten. ◀

66 Bokatak, Pintxoak eta Plater Konbinatuak, ugari.  
-- 7etan irekita --  
M.J. Iraola, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 19 37

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

SAN ISIDRO EGUNA ▶

# San Isidro, baserritarren omenez

## Ekintza eta ikuskizun ugari izan ziren atzo Tolosaldeko herri askotan

O. ESKITXABEL/G. AZKUE

San Isidro eguna izan zen atzo, eta gogoan izan zuten beraien eguna Euskal Herriko baserritarrek, baita Tolosaldeko herrietakoek ere. Baserritarren eguna, eta, herri askotan festa eguna izaten da atzokoa. Horren adibide da, Tolosan, Asteasun, Larraulen, Orendainen, Zizurkil, Abaltzisketan... antolatutako festa egitaraua.

San Isidro besotan hartu eta ohiko ibilaldia egin zuten Abaltzisketan mezari hasiera emanaz. Elizari buelta eman zioten; ibilaldia egin zuten bitartean kanpai hotsa eta suziriak entzun zitezkeen. Tolosan ere, izan zen prozesioa; Santa Maria elizatik abiatu eta Alde Zaharreko hainbat kale zeharkatu ondoren, elizarako bidea hartu zuten berriro ere. Ohi bezala, txistularien doinuek lagundu zioten santuari; ondoan, baserriko produktuez betetako saskiak zeramatzaten hainbat neskatxek.

### Proba desberdinak

Asteasun egitarau zabala presatatu zuten baserritarren egun honetarako. 13:30ean hasi ziren idiak plazak egin nahian. Olarreaga Goikoaren idiek Barriolaren idien aurka egin zuten norgehiagoka. Lehenengokak 30 plaza eta zinta bat lortu zituen; bigarrenak, berriz, 34 plaza justu. Hogei minutu izan zuen bakoitzak ahal zutena egiteko.

Idi pare baten eta bestearen saioen artean, ahariak izan ziren plazan erakustaldia egiten. Behin plazako jardunak amaituta, guztiak Sarasola sagardotegira joan ziren San Isidro eguna omentzeko.

Zizurkil ere goizean hasi ziren ikustekoak. 11:00etan meza berezia izan zen eta prozesioak plaza zeharkatu zuten. Meza bukatu ostean, plaza Berrian idi probari ekin zioten. Kiskurraren eta Burrustiren idi pareak izan ziren lehian. Kiskurrak 31 plaza egin zituen 20 minutuan, eta, Burrustik, berriz, 16. Burrustik lehen hamar minutuak ongi egin baditu ere,

idiak gelditu egin zaizkio azken hamar minutuetan.

Ekintza berezia honen ondoren etorri zen. Zizurkilgo Joseba Otaegi gazteak, Jesus Mari Lasa legorretarraren aurka egin zuen aizkoran. Otaegik, uztailen egingo du hirugarren mailara pasatzeko ahalegina. Lau kana erdiko enborrekin aritu ziren bi aizkolariak, eta, Otaegi gailendu zen proban. Ikuskizunen ondoren, bazkaria eta bertsoak izan zituzten, Aitor Usandizaga eta Iker Osaren eskutik. Arratsaldean Bukalai dantza taldearen ikuskizuna izan zen herrian.

Bazkariak eta afariak nonahi izan ziren: Orendainen, Balarrairen, Larraulen...

Elduainen, gaur izango dira San Isidro eguneko ekitaldiak; gazta lehiaketa, bazkaria, bertsolariak eta kale antzerkia egingo dituzte, besteak beste, baserritarren egunaren aitzakipean.



**Asteasu.** Idi-proban Olarreagagoikoa eta Barriola aritu ziren idiekin Asteasuko plazan. G. AZKUE



**Abaltzisketa.** Ohi bezala elizari buelta eman zioten San Isidoren irudia besoetan eramanez. O.ESKITXABEL



**Zizurkil.** Idi proben ostean, aizkora erakustaldia izan zen, protagonista, Joseba Otaegi zizurkildar gaztea izan zen. G. AZKUE



**Orendain.** Ostatu jatebean bazkaldu zuten orendainarrak meza entzun ondoren; 40 lagun inguru bildu ziren bertan. O.ESKITXABEL

bixitegia  
Euskal Herria, 56 • 20400 IBARRA  
Tel. 943 67 58 77  
Faxa: 943 67 21 40  
**Zumeta**

**OTEGI**  
erakuntzak, s.l.  
Promozioa eta eraikuntzak  
Bizkai kalea, 2 - behe  
20400 TOLOSA  
Faxa: 943 69 71 98  
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

**Elduainen Hizkuntza Eskola 2004ko ludoteka**  
Uztailen Ingelesez ondo pasa nahi baduzu, Zatoz gure akademiara!!!!  
DEI EZAZU 943 674 733  
TELEFONORA 16:30etik 19:00etara.  
epea irekita egongo da maiatzaren 20a arte.



## FUTBOLA ▶

**Debatarren aurka galdu zuten Tolosa CFko mutilek**

Arrasateren aurka jokatuko dute denboraldiko azken aurreko partida

## O.ESKIXABEL

Galtzen hasi eta galtzen amaitu zuten tolosarrek Amaiak bat talde debarra- ren aurka herenegun iluntze- an Berazubín zuten partida.

Lehenengo zatian, 0-2 emaitzarekin utzi zuten zelaia: «Tolosarrak ez ziren jo- koan sartu eta oso gaizki ari- tu ziren», azaldu dute taldeko ordezkariek. Bi golak, Gon- zalezzen eta Perezzen eskutik iritsi ziren, hurrenez hurren.

Bigarren zatian «gogo han- diagorekin atera ziren tolo- sarrak», diote ordezkariek. Gol bat sartzea ere lortu zu- ten; Oruek 67. minutuan sar- tu zuen gola. Hala ere, «lehe- nengo zatian baino askoz ho- beto jokatu zuten arren, ezin izan zuten aurkariaren defen- tsa gainditu», zehaztu dute.

Denboraldia amaitzeko bi partida besterik ez zaizkie geratzen tolosarrei; eta orain, datorren urtera begira tal- dea osatzeko lanean», ari dira. Datorren astean, Arra- saten jokatuko dute.

## ESKOLARTEKO OLINPIADAK ▶

**650 ikasle inguru, Eskolarteko Olinpiadaren XXXIII. edizioan**

Eskualdeko eskola guztietako gaztetxoek hartzen dute parte Olinpiadetan

## OLAIJA ESKIXABEL

Trianguloan, kamiseta desber- dinekin eskualdeko hainbat ikastetxetako ikasleak ikus- zitezkeen. Bertan, Tolosako Las- korain Ikastola, Berastegiko Muñagorri eskola, Ikaztegieta- ko eskola eta Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolako ikasleak zeuden Eskolarteko Olinpiadei hasiera emateko prest. Leku- koa Laskorain Ikastolako ikas- le batek hartu eta bere atzetik korrika abiatu ziren Triangulo- an bildutza zeuden ikasleak eta irakasleak. Eta korrika egin zuten Berazubirainoko bidea; ibilbidean zehar, lekukoa aipa- tutako ikastetxe horietako ikasleek eraman zuten.

Berazubín, eskualdeko gai- nontzeko ikasleak zeuden zain. Eta, Olinpiaden inguruko idatzi bat irakurri ondoren, probei ekin zieten.

Aletismo probekin hasi zi- ren; erreleboka, proba desber- dinak egin zituzten. Ondoren, luzera eta altuera jauziak eta pilota jaurtiketa egin zituzten. Antolatzaileek azaldu dutenez, «alebinetatik hasi eta infantil mailara bitarteko ikasleek har- tzen dute parte Eskolarteko Olinpiadetako probetan».

## Hurrengo astera bitarte

Guztira, 650 ikasle inguruk hartuko dute parte aurtengo Olinpiadetan. Eta atzoko saioaz gain, astean zehar beste hain- beste egingo dituzte.

Asteazkenean, maiatzaren 19an, esaterako, atletismoko probak egingo dituzte. Ostegu- nean, maiatzaren 20ean, ber- rriz, herri kirolen tarteak izango da. Eta ostiralean, pilota parti- dak jokatu dira; finaleko partidak izango dira. Partida horiek Beotibar pilotalekuan izango dira oraindik orduak zehazteko badaude ere.

Larunbatean, maiatzaren 22an, Olinpiadetako azken probak egingo dituzte. Orduan ja- kingo da behin betiko sailka- penak; proba bakoitzak sailka- pen propioa izango du.



San Frantzisko kalea zeharkatu eta Berazubira iritsi ziren. O.ESKIXABEL

## XAKEA ▶

**Iñaki Azkue tolosarra Partida Azkarreko Xake Txapelketako irabazlea**

Eskualdeko hamasei parte-hartzailek eman zuten izena txapelketan

## O.ESKIXABEL

Tolosa, Ibarra, Villabona eta Asteasutik inguratu ziren Par- tida Azkarreko Xake Txapelke- tako parte-hartzaileak. Hamasei guztira, Iñaki Azkue tolosa- rra izan zen txapeliduna, ondoren Xabier Mujika eta Iñaki Etxeberria sailkatu ziren. Gaztetxoaren artean, Xabier Korrederak lortu zuen posturik hoberena; bederatzigarren postuan geratu zen.



Eskualdeko herrietatik inguratu ziren partehartzaileak. O.ESKIXABEL

**DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA Egin itzazu zure erosketak bertan**

- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre
- Ileapaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri
- Bereziak
- Factory
- Elite Kirolak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Poxpolin
- Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro- Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia
- Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Akular Oinetakoak
- Iratzar Erlojutegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihokak
- Kanikak arropa denda

**HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELARAKIN %5\*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN.** (Martxoetik ekainera)

**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!**

\*Promozio hau ez zaie beste beharpenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.

**www.tolosaldekohitza.info**

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

TOLOSA ▶

## Egun borobila eta jende ugari atzo Tolosako azoketan

Eguraldia apartak lagundu zuen jendea ekartzen, nobedadeak ere izan ziren

PABLO ALBERDI

Benetan borobila izan zen atzoko eguna. Eguraldiak, behingoz lagundu zuen eta erosleek erantzuna izugarria izan zen. Salmentak nabarmen igo ziren pasa den astearekin alderatuz, eta produktua eskaintza ere igo egin zen.

Berrikuntza bezala, Gernikako piperrak, mortxela edota ondokoak izan ziren.

Isidro deunaren eragina nabarmena izan zen atzoko egunean Tolosako azoka guztietan.

ATZOKO AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
<b>Bertako produktuak</b>		
Arkumea	3,00*	3,20
Indioiarrak	4,30	-
Oilaskoa (3 ast.)	1,50	-
Ahatea	2,50	-
Babarrun zuria	6,00	12,00
Tomatea	3,00	5,00
Babak	2,50	-
Arrozak	1,30	2,10
Artisau opila	0,96	-

Produktu ekologikoak		
Udarea	1,92	2,72
Sagarra	2,13	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Hurra	4,00	6,00
Patata	1,52	-
Azenarioa	2,14	2,53
Dilistak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00
Behi gazta	10,22	10,82

Berdura plaza		
Lilia	1,20	-
Ziklamena	5,50	-
Konifera	6,00	-
Geranioa	2,00	-
Txilarra	4,50	-
Krabelina	4,80	-
Krisantemoa	4,80	-
Alegria	1,00	-
Surfinia	2,40	-
Tagetea	1,00	-

\*Prezioak eurotan

VILLABONA ▶ GIZARTEA

# Festa giroa izan zuten atzo herriko gazteek asanbladaren jaian

Jende asko eta eguraldi ona, ongi pasatzeko osagai garrantzitsuek ez zuten hutsik egin atzo Gaztetxeko festan

GARAZI AZKUE

Festa itzela antolatu zuten atzo herriko gazteek. Mendi bueltarekin hasi zuten jaiak, 55 bat gazte bildu ziren Onddo inguruan. Eta bertan bazkaldu eta jokoak egin ostean, herrira egin zuten buelta. Flemingo aparkalekua dotore jarri zuten gazteen festa honi harrera egiteko.

Villabonara iritsi eta parodia egiteko jantzi zituzten guztiak pijamak, dotore. Trikipoteoa eta afaria izan ziren ondoren, 110 lagunek eman zuten izena Gazte Asanbladak antolatutako bertso afarian. Festa giroa. Kontzertuek ere ez zuten huts egin, eta Gaztetxean bertan jarraitu zuen festak. Oso ongi pasa zutela azaldu zuten bertaratu ziren gazteek.



Pijamak soinean zituztela agertu ziren gazteak. G. AZKUE

AIZTONGO ▶ KIROLA

## Adunan amaitu da Aiztondoko Pala eta Frontenis Txapelketa

Kopak eta txapelak eskuan etxeratu ziren irabazleak, sariak ere zozketatu zituzten

G. AZKUE

Adunako pilotalekuan izan ziren atzo Aiztondoko Pala eta Frontenis Txapelketako azken partidak.

Frontenisean mutilek izan zuten norgehiagoka, eta, palan, berriz, neskek eta mutilek jokatu zituzten finaleko partidak.

Ortizek eta Etxeberriak irabazi zuten frontenisean, Iñaki

Murua eta Martin Artolaren aurka, 25-12. Palan, nesken artean, Ezeiza eta Etxeberria gailendu ziren Ana eta Miren Amonarrizen aurka, 22-7ko emaitzarekin. Eta azkenik, mutilen pala finalari dagokionez, Urdanpiletak eta Oterminek, Larrarte eta Mujikaren aurka irabazi zuten, 35-23.

Irabazleek, kopak eta txapelak etxeratu zituzten eta parte hartzaile guztien artean, sariak



Finaleko partida bat. G. AZKUE

zozketatu zituzten bukaeran; CDak Beñat Igerabide eta Ana Amonarrizentzat, kontzertura-ko sarrerak Labi Otermintzatzat eta La Perlarako sarrerak Miren Amonarrizentzat izan ziren.

POLITIKA ▶



Joseba Egibar. I. ETXEBESTE

## Joseba Egibar hautatu dute EAJko GBBko lehendakari

Eskualdeko Jose Mari Agirre, Patxi Ezkiaga eta Rafa Uribarren ere GBBn izango dira

ERREDAKZIOA

Aurreikuspen guztiak betez, Joseba Egibar Lizartzako alkatea aukeratu zuten atzo EAJko GBBko lehendakari. «Demokraziak gainezka» egiteko bidean lanean jarduteko konpromisoa hartu zuen. Egibarrek bozken %78 lortu zuen Gipuzkoako Herrialde Batzordean, 125 boto. Egibarren aurkariak, Tolosan bizi den Juan Mari Juaristik, 36 boto eskuratu zituen. Horrela, Egibarren aldeko zereñdak gehiago osoa eskuratu zuen.

Orain, Euzkadi Buru Batzarreko kide ere izango da Egibar. Berarekin batera Jose Mari Agirre eta Patxi Ezkiaga Tolosako zinegotzi ohiak eta Rafa Uribarren Anoetako zinegotzia izango dira GBBn eta Aberri Batzarrean. EBBra «aportazio politikorako» go-goarekin joango dela esan zuen Egibarrek.

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

**Txakurra.** Ehiza txakurra galdu da Urkizun. Norbaitek ikusi badu deitu 943 01 65 78 telefonora.

**TOLOSALDEKO HITZAK** zozketatutako *Leidor Zinemaren* astebukaera honetan **'50 PRIMERAS CITAS'** filma ikusteko bi sarreraren irabazlea: **RAMON ZABALA (ALTZO)**

**Harpidedunei banatua ▶ 2004ko maiatzaren 16a, igandea ▶ II. urtea**

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **15** hotzera **9**

BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK udalak: Abeltzasketa, Aduna, Abuzur, Alegia, Alkiza, Alzo, Arinceta, Arzeta, Balaran, Berastegi, Edoan, Hermsale, Ibarra, Irua, Lantzi, Leizaketa, Lizaketa, Orendain, Orreaga, Tolosa, Villabona, Zuzurki

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurerria. Kultura Saila

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)** **943 30 43 46**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Asteasu.** Gipuzkoako II. Zaldi Eguna, 09:00etatik 20:00etara.  
**Berastegi.** Sendotza sakramendua egingo dute, 12:00etan, meza nagusian.  
**Elduain.** Sendotza sakramendua, 10:00etan.  
**Larraul.** Lore azoka. 10:30etik eguerdira arte, plazan. Hilaren 23an ere egingo dute.  
**Ibarra.** 18:00etatik 00:00etara. 18:30etan, haur jolasak Garagardo Festaren barruan.  
**Tolosa.** Maiatz akordeoi orkestraren kontzertua. 13:30ean, San Frantzisko elizan.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Alejandro Gonzalezen margoak Jubilatutako Elkartearen.  
**Hernialde.** Olivia Sanchezen akuarelak Ostatuan.  
**Ibarra.** Nazio Mailako III. Pegatina Mostra Gaztetxean 19:00etatik 21:30era  
**Tolosa.** Anjel Cuerdoren argazki erakusketa Aranburu Jauregian ekainaren 12a bitarte.  
**Tolosa.** Javier Sotaren margolanak Lanbroa tabernan. Hilaren bukaera arte  
**Tolosa.** Maribi Iparragirrenen pirograbatuak Saikin tabernan. Hilaren bukaera arte.  
**Tolosa.** Manuel Arretxeren margolanak Sorron dendan.



**HITZAren aurkezpen ekitaldia Leitzan**

**LEITZA ▶** Atzo eguerdian egin zen Leitzako udaletxean datorren ostiraletik aurrera kaleratuko den **TOLOSALDEKO** ETA **LEITZALDEKO** HITZAren aurkezpen ekitaldia. Euskarazko egunkariaren ordezkariak eta Leitzaldeko gizarte eragileek hartu zuten parte ekitaldi honetan eta herritarrek ere izan ziren bertan. Egunkaria doan banatuko da Leitzan eta Areson. Argazkian, ezkerretik hasita, Martxelo Otamendi *Berriako* zuzendaria, Joxemi Saizar *HITZA*ko zuzendaria, Joxe Manuel Atxaga administrazio kontseiluararen lehendakaria, Unai Zabaleta *Karrape* irratikoa eta Jaione Astibia *HITZA*ko Leitzako kazetaria. IRATXE ETXEBESTE

**GUARDIAKO FARMAZIA**

**Tolosa.** Morant. Zabalzarreta 1 (Tolosa). 943 673849.

**HITZALDIAK**

**Bidegoian.** *Komunikazioa eta*

*adiskidetasuna. Bizimodu osasuntsurako giltzarriak.*

Bihar, XXII. Emakume jardunaldien barruan.

**TOLOSA KUP**

**13:00.** Neskak/Trans. Escolar.

**13:45.** Egoki/Lokimotiv.  
**14:30.** Ordago/Bonbero.  
**15:15.** Lauetan Pix/I. Falkon.  
**16:00.** Santos hara./Amaroz B.  
**16:45.** Hawai/Egunkaria.  
**17:30.** Juvenil/Plaza Nueva.  
**18:15.** Maradonas/R.d.juerga.  
**19:00.** Lekukik/Ioniko.

**19:45.** Enara/Azkar.  
**20:30.** Wasper/Itzuli 1.  
**21:15.** Itaie/Gorro Team.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *50 primeras citas.* 17:00, 19:30, 22:30. Leidor.

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Irene (Tolosa).

Bihar 9 urte. Zorionak. Gaur ondo pasa partiduan, eta bihar ere bai. Muxu bat izebaren eta Amaiaeren partez.



**URTE ASKOAN**  
 Eneritz Zubillaga (Bedaio).

Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu goxoxo bat aita, ama eta Julenaren partez.



**URTE ASKOAN**  
 Maialen Belaizaran Inza.

Gaur 4 urte. Zorionak osaba-izeba guztien partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Joxepi Garitano (Tolosa).

Gaur urteak betetzen ditu. Zorionak Tiema, Maialen, Izadi eta familiararen partetik. Aupa sorgina.



**URTE ASKOAN**  
 Uxue (Amaroz).

Gaur 5 urte. Zorionak denon partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Ander Uranga Egiguren.

Gaur 8 urte. Urte askotarako, ebekoen partetik.

**Guretzako, bezeroa da lehena.**

**407 berria. Gidatzeko grina.**

**TOLOSA MOTOR, S.A.** Peugeot kontzesionarioa

San Esteban auzoa, 14 A  
 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)  
 T. 943 650 337 - F. 943 652 938

**407**

**UDAKO ESKAINTZA**

**Klaseak 12€**

**ARALAR**

Informazio gehiago autoeskolan

Urdaneta, 28 • ORDIZIA  
 Tel.: 943 88 16 51

**HITZA,** zorion agurren **tartea**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behe - Tolosa)